

JARDUERA



Plan Estrategikoaren diseinua

12

HELBURUAK

• Plan Estrategikoa diseinatzea.

prozedura

Plan Estrategikoa Hizkuntza Proiektuaren atal eragilea da. Lau urteko epealdian ikastetxeak garatuko duen jarduera-multzoa biltzen du, aurreikusitako helburuak lortze aldera. Plan Estrategikoak Ikastetxearen Urteko Planean egon behar du islatuta.

Hainbat modutan diseinatu daiteke. Helburuak eta jardunbide-markoa zehaztuta eta ikastetxe osoak hura onartuta, Hizkuntza Proiektuaren batzordeak Plan Estrategikoaren lehendabiziko diseinua egingo du. Ondoren, hezkuntza-komunitateak osatu, berrikusi, aberastu eta onartu egingo du. Era berean, lehendabiziko diseinua zikloka edo departamentuka egin daiteke eta, ondoren, lehenengo zirriborro hori ikastetxe osoak berrikusi eta, hala badagokio, onartu egingo du.

Atal hau garatzeko, komeni da lan kooperatiborako teknikaren bat edo talde-dinamikaren bat baliatzea irakasleen partaidetza bultzatzeko.

Plan Estrategikoa diseinatzean, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Helburu zehatzak honelakoak izango dira: neurgarriak, behagarriak eta lortzeko modukoak. Horregatik, zehatz adieraziko dira ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea” edo “ikastea” gisakoak saihestuz; izan ere, zaila da halakoak neurtzea.
- Jarduera bakoitzak helburu bat izango du. Hala ere, helburu batek balio lezake jarduera-esparru bereko beste jarduera baterako edo batzuetarako.
- Jardueraren edo koordinazioaren ardura norbanako batek edo talde batek hartuko du.
- Arduradunak ziurtatuko du jarduera aurreikusita bezala garatzen eta inplementatzen dela, denbora-epiak betetzen direla, baliabideak abiarazi edo lortu direla.
- Jarduera bakoitza garatzeko epea zehaztuko da: jardueraren hasiera-amaierak eta aldizkakotasuna ere bai.
- Ahal delarik, ikastetxeak berak dituen baliabideak planteatuko dira eta aurreikusitako helburuak lortzeko erabiliko dira. Garrantzitsua da baliabide bakoitza argi zehaztea, modu abstraktuan aipatu gabe.
- Ebaluazioan, adierazleak lorpen- zein jarraipen-adierazleak izan daitezke. Zehatz adieraziko dira, ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea”, “jakitea”, “ikastea” gisako aditzak saihestuz, halakoak neurtzea zaila baita.
- Lorpen-adierazleak jarduera bakoitzaren azken helburuari lotuta daude: zer lortu nahi den adierazten dute.
- Jarraipen-adierazleak prozesuari lotzen zaizkio (*bilerak egin dira, galde-sorten erantzunak bildu dira...*); eta, beraz, jarduera aurreikusi bezala betetzen ari den ala ez egiaztatzeko balio dute.
- Onartze-mailak adieraziko du adierazlearen gutxiengo betetze-maila (esaterako, “Ahozko hizkuntzari lotutako bi ebaluazio-adierazle egitea” baldin bada gure lorpen-adierazlea, haren onartze-maila honako hau izan daiteke: “Gutxienez, bi ziklotan edo bost ikasgaitan egitea lortuko da”).

emaitza | ekoizpena

denbora | denboralizazioa

Hizkuntza Proiektuaren Plan Estrategikoa.

Hiru edo lau lan-saio.

tresnak

ereduak | adibideak

12.1. tresna. Plan Estrategikoa idazteko txantiloia | 97-98. or.

12.1. adibidea. Plan Estrategikoaren helburu zehatz baten garapena | 135. or.